**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2015eko Azaroak 24 / 24 - Noviembre - 2015**

**TOKIA / LUGAR:** SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 24/11/2015

**HASIERA / INICIO:** 17:00 horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Doña Rosa Maria Mintegi Egileor andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Doña Maria Juliana Perera Figueredo andrea
Don Jorge Varela Dorrio jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSOE) (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkatesa, **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**, batzarrari hasiera eman ondoren, 17:19ak direnean, eta talde politiko guztiek onartutako zenbait adierazpen instituzional irakurri eta gero, hauxe adierazten du:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**, siendo las 17:19 horas, y tras procederse a la lectura de varias Declaraciones Institucionales aprobadas por todos los Grupos Políticos, comenta:

Eskerrik asko denoi, eta orain gaurko plenoari ekingo diogu, baina bozeramaileen batzordean aipatu dudan bezala, gaur mahai elektoralen zozketa daukagunez, hirugarren puntutik hasiko gara, eta gero pasatuko gara lehenengora eta bigarrenera.

Gracias a todos, y a continuación daremos comienzo al pleno de hoy, pero como lo he indicado en la Junta de Portavoces, empezaremos por el tercer punto, puesto que hoy debemos proceder al sorteo de las mesas electorales.

**HIRU.- ZOZKETA PUBLIKO BIDEZ, PRESIDENTEA ETA BOKALAK IZENDATZEA 32 HAUTESKUNDE-MAHAI OSATZEKO, 2015EKO ABENDUAREN 20KO GORTE NAGUSIETARAKO EGINGO DIREN HAUTESKUNDETARAKO. HALABER, HAUTESKUNDE-MAHAI BAKOITZEKO ORDEZKOAK IZENDATUKO DIRA.**

**TRES.- DESIGNACIÓN, MEDIANTE SORTEO PÚBLICO, DE PRESIDENTE Y VOCALES DE LAS 32 MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES A CORTES GENERALES A CELEBRAR EL PRÓXIMO 20 DE DICIEMBRE DE 2015, ASÍ COMO NOMBRAMIENTO DE SUPLENTES PARA CADA UNO DE LOS MIEMBROS DE LAS MESAS.**

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Abenduaren 20an Gorte Nagusietarako hauteskundeetako hautes-mahaietako kideak izendatzeko zozketa burutuko da.

Zozketa egiteko INEk bidalitako fitxeroa erabiliko dugu.

Erabiliko diren aldagaiak hauexek izango dira:

- Mahaikideek gehienez ere 70 urte izatea.
- Mahaiko presidente izateko: ikasketa maila, 40-49 bitartekoa eta, gutxienez, batxilergoa edo FP IIa izatea.
- Mahaiko bokala izateko: ikasketa maila, 30-49 bitartekoa eta, gutxienez, Eskola Graduatua edo baliokidea izatea.
- Zozketa modu aleatorioan egingo da. Mahai bakoitzeko hauek aukeratuko dira: Presidentea, 1. Bokala, 2. Bokala eta mahaikide bakoitzeko ordezko bi. Halaber, Zonaldeko Hauteskunde Juntaren erizpideak jarraituz, beste hiru pertsona gehiago aukeratuko dira.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: Se va a proceder a la celebración del sorteo para la selección de los componentes de las mesas electorales de las elecciones a Cortes Generales 2015, que se celebrarán el próximo 20 de diciembre.

Para la ejecución del presente sorteo, se parte del fichero enviado por el INE.

Las variables que se van a utilizar, son las siguientes:

- Para todos los candidatos: Edad menor de 70 años.
- Para los candidatos a Presidente de mesa: Nivel de instrucción: 40-49 Mínimo Bachillerato o FP II.
- Para los candidatos a Vocales de mesa: Nivel de instrucción: 30-49 Mínimo Graduado Escolar o equivalente.
- El sorteo se efectúa de forma aleatoria, mesa por mesa, seleccionando el Presidente, 1er. Vocal, 2do. Vocal y los 2 suplentes de cada candidato. Siguiendo los criterios de la Junta Electoral de Zona se eligen tres personas adicionales.

*10 minuto etenaldia amaitu ondoren, batzarrak jarraitu egiten du.-*

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBORROAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2015EKO UZTAILAREN 9KOA ETA 2015EKO IRAILAREN 29KO OHIKOAK.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2015eko uztailaren 9koa eta 2015eko irailaren 29ko ohikoak hain zuzen ere.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): 2015eko uztailaren 9ko aktaren gainean zerbait esateko?

* Maeztu Perez jaunak (EH Bildu): Bakarrik esateko akta horren 5. orrialdean ni agertzen naizela Eusko Alderdi Jeltzaleko kide bezala. Eta bigarren gauza bat argitzeko; akta horretan ez da agertzen nortzuk diren Landako Eskolako kontseiluko kideak, beraz, badakigu nor joan den kontseilura baina ez dakigu noiz dagoen eginda izendapen hori.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Mahai gainean utziko dugu 2015eko uztailaren 9ko akta.

Hortaz, **2015eko uztailaren 9ko** ohiko akta **mahai gainean geratzen da.**

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): 2015eko irailaren 29koaren inguruan zerbait esateko?

BOZKETA egin ostean.

Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2015eko irailaren 29ko** ohiko **akta.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

*Finalizado el receso de 10 minutos, se reanuda la sesión.*

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES, CORRESPONDIENTE A LAS ORDINARIAS DE 9 DE JULIO DE 2015 Y 29 DE SEPTIEMBRE DE 2015.**

DADA LECTURA a los borradores de las actas de las sesiones anteriores, correspondientes a las Ordinarias de 9 de Julio y 29 de Septiembre de 2015.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): ¿Algún comentario en relación al acta de 9 de julio de 2015?

* Concejal Sr. Maeztu Perez (EH Bildu): En la página 5ª del acta aparezco como representante del Partido Nacionalista Vasco. Por otro lado, en dicha acta no se recoge quiénes son los representantes del Consejo Escolar de Landako. Sabemos quienes acudirán al consejo, pero desconocemos cuándo está hecha la designación.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Dejaremos sobre la mesa el acta de 9 de julio de 2015.

Por lo tanto, **queda sobre la Mesa** el acta de la sesión ordinaria de **9 de Julio de 2015.**

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): ¿Alguna objeción al acta de 29 de setiembre de 2015?.

PREVIA votación realizada al efecto.

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el **acta** de la sesión ordinaria de **29 de Septiembre de 2015.**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Betiko moduan, espediente guztiak dauzkazue eskuragai Idazkaritza Orokorrean. Eta honekin lotuta, erantzuna emango diot aurreko plenoan egindako galdera bati, hain zuzen ere, noiz egongo diren prest dekretu elektronikoak eta, oker ez banago, gaurtik aurrera ikusgai daude.

Orain 4. Puntura pasatu beharko ginateke baina aho batez onartu izan dugu adierazpen instituzional bat bozeramaileen batzordean, eta datorren astean, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko eguna da eta bezperan adierazpen instituzional moduan aurkeztuko dugu jendaurrean. Beraz, puntu hau bertan behera geratu da aho batez onartuta daukagulako adierazpena egitea.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Como siempre, los expedientes los tenéis a vuestra disposición en la secretaría general. Y daré respuesta a una pregunta realizada en el pleno anterior, esto es, cuándo estarán a disposición de los corporativos los decretos electrónicos, que, si no me equivoco, lo estarán a partir de hoy.

Ahora deberíamos pasar al punto cuarto, pero en la Junta de Portavoces, por unanimidad, aprobamos una declaración institucional en relación al Día Internacional del Euskera a celebrar el 3 de diciembre, que la hacemos pública. Es por ello que retiramos este punto porque, por unanimidad, ha sido aprobada la declaración institucional en torno al Día Internacional del Euskera.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**LAU.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKOA (SARRERA ERREGISTROA 2015008196, 2015EKO AZAROAREN 19KOA).**

Alkate andreak adierazi duen moduan, puntu hau erretiratu egiten da gaurko deialdiko gai-zerrendatik, izan ere, adierazpen instituzional moduan onartu da gaurko egunean egindako bozeramaileen batzordean.

**CUATRO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU RELATIVA AL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2015008196, DE 19 DE NOVIEMBRE DE 2015).**

Tal y como lo ha anunciado la Alcaldesa anteriormente, este punto se retira del orden del día de la presente convocatoria, por cuanto que el mismo ha sido aprobado como Declaración Institucional en la Junta de Portavoces celebrada el día de ayer.

**BOST.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, 2012KO OTSAILEKO OSOKO BILKURAREN AKORDIOARI BURUZKOA, ZEINETAN DURANGO 1936 ELKARTEAK IZENPETURIKO MOZIOA ONARTU ZEN DURANGOK, 1937AN, JASANDAKO BONBARDAKETEN GAINEAN. (SARRERA ERREGISTROA 2015008198, 2015EKO AZAROAREN 19KOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldearen ordezkariak aurkeztutako mozioa, 2012ko

**CINCO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU RELATIVA AL ACUERDO PLENARIO DE FEBRERO DE 2012 POR EL QUE SE APROBÓ UNA MOCIÓN SUSCRITA POR LA ASOCIACIÓN DURANGO 1936 SOBRE LOS BOMBARDEOS SUFRIDOS POR NUESTRO MUNICIPIO EN EL AÑO 1937. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2015008198, DE 19 DE NOVIEMBRE DE 2015).**

Dada lectura a la Moción presentada por la representación de Euskal Herria Bildu, relativa al

otsaileko Osoko Bilkuraren akordioari buruzkoa, zeinetan Durango 1936 Elkarteak izenpeturiko Mozioa onartu zen Durangok, 1937an, jasandako bonbardaketen gainean, Sarrera Erregistroa: 2015008198, 2015eko azaroaren 19koa, eta honako hau dioena:

*"2012ko otsailean, Durangoko Udalak, Durango 1936 elkarteak gure herriak 1937an jasandako bonbardaketei buruz aurkezturiko mozioa onartu zuen, alegia, Italiar abiazio faxistak eragindakoa Espainiako tropa faxista matxinatuak aliatu zirelarik.*

*Mozioan eskaera zehatz bat egiten zitzaien Espainiako eta Italiako gobernuei: barkamena eskatu zezatela. Baina ez da barkamen-eskaririk iritsi, horrexegatik, 2015eko martxoan, EH Bilduk aurkezturiko mozioari ekinez, Durangoko alkate andreak konpromisoa hartu zuen batzar bat egiteko Italiako kontsulatuarekin, eta batzarrean izango ziren, baita ere, Durango 1936 eta Gerediaga elkarteetako ordezkariak. Nolanahi ere, oraindik ez da batzarrik egin.*

*Italiako estatuak, egindako kaltea aitortzeko eta barkamena eskatzeko urratsik ez emateaz gain, azaro hasieran jakin dugu, italiar eta espainiar faxistek CTVri (Corpo Truppe Volontarie) eginiko omenaldietan hartzen zutela parte. CTV hau Mussoliniren Italiak Francoren kolpe faxistari egin zion kontribuzioaren ordezkari nagusia dugu.*

*ANCIS-ek, Estatu Espainiarreko faxismoa sostengatu zuten italiarren oroitzapena goresten duen antolakuntzak, eta Falangeak baieztatu zuten ekitaldirako gonbita jaso zutela Italiar armadaren eguna zela-eta. Italiako enbaxadak ezeztatu egin zuen, baina kontua da faxismoa goretsi egin zela.*

*Testuinguru honetan, gogorarazi nahi dugu, 2012an, Bartzelonako Entzutegi Probintzialak, AltraItalia-Barcelona elkarteak aurkezturiko kereila tramitatzea onartu zuela. Lehen aldia da Estatu Espainiarreko tribunal batek Espainiako gerran bando faxistak gizateriaren aurka egindako krimenak epaitzea onartzen duela. Aste*

Acuerdo Plenario de Febrero de 2012, por el que se aprobó una Moción suscrita por la Asociación Durango 1936 sobre los bombardeos sufridos por nuestro municipio en el año 1937, con Registro de Entrada nº 2015008198 de 19 de Noviembre de 2015, del tenor literal siguiente:

*"En febrero de 2012 el pleno del ayuntamiento de Durango aprobó una moción presentada por la asociación Durango 1936 relativa a los bombardeos sufridos por nuestro municipio en el año 1937 por parte de la aviación fascista italiana, aliada con las tropas fascistas españolas sublevadas.*

*En aquella moción, en otras cuestiones se recogía una petición expresa al gobierno español e italiano para que pidieran perdón al municipio de Durango. La citada petición de perdón nunca llego, es por ello, que en marzo de 2015, tras una moción a instancia de EH Bildu, la alcaldesa de Durango se comprometió a promover una reunión con el consulado italiano en el que también participaran representantes de la asociación Durango 1936 y Gerediaga. Reunión que a día de hoy no se ha realizado.*

*Mientras los pasos necesarios para solicitar el reconocimiento del daño causado y la petición de perdón por parte del estado italiano no se dan, a principios de este mes tuvimos conocimiento de que como cada año, fascistas italianos y españoles compartían actos de homenaje al C.T.V. (CorpoTruppeVolontarie), cuerpo que representó la contribución de la Italia de Mussolini al golpe fascista liderado por Franco. Se trata de una gira que finalizo en la cancillería de Madrid de la embajada italiana.*

*El ANCIS, organización que exalta la memoria de los italianos que apoyaron el fascismo en el Estado español, y la Falange afirmaron que habían sido invitados al acto organizado con motivo del día de las fuerzas armadas italianas. La embajada italiana lo negó, pero el hecho cierto es que esa exaltación del fascismo tuvo lugar.*

*En este contexto, creemos conveniente traer a colación el hecho de que en el año 2012, la Audiencia Provincial de Barcelona, admitió a trámite la querella presentada por la asociación AltraItalia-Barcelona. Por primera vez un tribunal del estado español aceptaba enjuiciar algunos de los crímenes de lesa humanidad perpetrados por el bando fascista durante la guerra de España. Esta misma*

*honetan bertan jakin dugu Bartzelonako Udala kereilan aurkeztuko dela.*

*Honegatik guztiagatik, Durangoko Udalak hauxe onartzen du:*

1. *Alkate andreari eskatzea, urtea amaitu baino lehen, batzar bat egitea eskatu dezala Madrilen dagoen Italiako enbaxadarekin, betiere, 2015eko martxoan onarturikoa aintzat hartuz eta konpromisoa berretsiz. Batzarra egiteko eman beharreko urratsak ematen ez badira, Durangoko EH Bilduk, EAJrekin batera konpromisoaren alde egin zuen taldeak, egin beharreko tramiteak egingo ditu aipatutako batzarra egin dadin.*
2. *Durangoko Udalak konpromisoa hartzen du Durango 1936 eta Gerediaga elkarteekin lanean jarduteko eta, halaber, lankidetzan aritzea eskatuko dio AltraItalia-Barcelona elkarteari, material historikoa biltzeko –biktimen lekukotzak barne-, abiazio eta armada faxistak 1937an herritarren aurka jaurtitako bonbardaketen kontrako kereila aurkezteko."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Gure mozioan egiten duguna da azken urteetan bonbardaketaren inguruan aurkeztutako eta onartutako mozio edo akordioen inguruko kronologia bat.

Ziurrenik, kronologia hori ez litzateke hasi behar 2012. urtean, baizik eta 1937ko martxoaren 31n. Askotan hitz egin dugu bilkura honetan zer zaila den herritarrei kontatzea ezkutatuta egon den errealitate bat.

Memoriaz hitz egiten dugunean, bi ardatz nagusi aipatzen dira: egia eta erreparazioa. Durangok pairatu zuen bonbardaketaren inguruan ziurrenik ez dakigu egia guztia, nahiz eta Gerediaga Elkarteak beren-beregi egindako lanari esker, gertatutakoaren erantzuleak nortzuk izan ziren nahiko argi dugun. Baina oraindik hainbat gai pendiente geratzen dira. 2012ko otsailean bilkura honetan onartutako mozio batean, espresuki eskatzen

*semana hemos tenido conocimiento de que el ayuntamiento de Barcelona se ha personado en dicha querella.*

*Por todo ello, el pleno del Ayuntamiento de Durango acuerda.*

1. *Solicitar a la alcaldesa que antes de final de año promueva una reunión con la embajada de Italia en Madrid, en los términos y con la finalidad del compromiso adquirido en marzo de 2015. En caso de que no se den los pasos necesarios para promover esa reunión. EH Bildu de Durango, como grupo que junto al PNV se posiciono a favor de aquel compromiso, estará totalmente legitimado para realizar por su cuenta los trámites oportunos para llevar a cabo la mencionada reunión.*
2. *El ayuntamiento de Durango se compromete a trabajar junto a las asociaciones Durango 1936 y Gerediaga y solicitando su colaboración a la asociación AltraItalia, para recopilar todo el material histórico necesario – testimonios de las víctimas incluidos-con la finalidad de presentar una querella por los bombardeos realizados por la aviación y la armada fascistas en 1937 contra la población civil inerme, con cientos de víctimas."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: En la moción que presentamos hacemos una cronología de las mociones y acuerdos adoptados los últimos años en torno a los bombardeos.

Quizá la cronología no debería empezar en 2012, sino que el 31 de marzo de 1937. A menudo hemos dicho en este Pleno lo difícil que es relatar a la ciudadanía una realidad que ha sido tantas veces ocultada.

Cuando hablamos de la memoria debemos destacar dos aspectos, la verdad y la reparación. Seguramente desconocemos toda la verdad de lo ocurrido en el bombardeo de Durango, a pesar de que, gracias al trabajo realizado por Gerediaga, sabemos quiénes fueron los responsables de lo sucedido. No obstante, hay varios asuntos pendientes: en una moción aprobada en febrero de

genion Espainiako eta Italiako gobernuei egindako kaltea onartzea lehenengo urrats moduan, eta hori, momentuz, ez da gertatu.

Mozio hori Durango 1936 Kultur Elkartearen eskutik aurkeztu genuen, eta behin hori onartuta, eskatzen ziguten jarraipen berezi bat egitea; horregatik 2015eko martxoan mozio bat aurkeztu genuen jarraipen bat egiteko 2012an onartutakoari, hain zuzen ere, eskatzen genuen egindako kalteak onartuak izatea, era zuzenean, Italiako eta Espainiako gobernuen partetik. Hori momentuz ez da gertatu; bitartean, oso gertaera mingarriak gertatzen ari dira, adibidez, Durango bonbardatu zuten soldadu italiarrek pentsioak kobratzen dituzte Italiako gobernuaren aldetik, edo omenaldiak jasotzen dituzte aurtengo azaroan Espainia osoan zehar Falangearen eskutik; beraz, honen aurrean, uste dugu ezin garela geldi geratu.

Falangearen omenaldiak direla eta, azaroan salaketa-adierazpen bat egin genuen udal bezala, baina beste urrats bat egitea pentsatu dugu gaurko mozio honekin. Orain dela gutxi jakin izan dugu Bartzelonako Audientzia Probintzialak onartu egin duela AltraItalia memoriaren inguruan lan egiten duen elkartearen errekurtso bat. Lehenengo instantzian artxibatu egin zen kereila hori, Audientzia Probintzialera errekurritu zuten eta, hark arrazoia eman die.

Guretzat bide interesgarri bat zabaltzen du auto horrek, elkarte baten kereila bat onartzen duelako Bartzelonan egondako bonbardaketaren inguruan, alegia, gizateriaren aurka egindako krimenak salatzeko kereila bat. Eta, gainera, Bartzelonako Udala pertsonatu da kereilan, beraz, uste dut oso bide interesgarria zabaldu dela.

Horregatik bi eskaera zehatz egiten ditugu gure mozioan, alde batetik, 2015eko martxoan adostutako akordioa betetzea, alegia, bere sasoian eskatu genuen Italiako kontsulatuarekin batzar bat egitea, eta gaur eskatzen dugu Italiako enbajadarekin egitea. Kontsulatutik enbajadara aldatu dugu, jakin izan dugulako Bilbon dagoena Italiako kontsulatu honorarioa dela, eta ez dela Italiako gobernuaren ordezkari; horrexegatik, pentsatzen dugu biderik zuzenena Italiako Gobernuak Madrilen duen enbajadarekin egitea dela.

2012, solicitábamos expresamente a los gobiernos de España e Italia que reconocieran los daños ocasionados, pero, de momento, no lo han hecho.

La moción la presentamos a través de la asociación Durango 1936. Una vez aprobada la moción, pedíamos que se hiciera un seguimiento exhaustivo de su recorrido. Así, en marzo de 2015, presentamos otra moción para que se hiciera el seguimiento de la moción aprobada en 2012, concretamente, pedíamos que los gobiernos de España e Italia reconocieran los daños ocasionados. Pero no lo han hecho. Además, mientras tanto, han ocurrido unos hechos lamentables, como que los soldados italianos que bombardearon Durango perciben pensiones del Gobierno Italiano, o se les homenajea, como ha ocurrido en noviembre de este año, a través de la Falange española. Ante hechos de este cariz, no podemos quedarnos de brazos cruzados.

En cuanto a los homenajes de la Falange, en noviembre realizamos una declaración institucional de denuncia, pero con la moción de hoy proponemos dar otro paso. Hace poco hemos sabido que la Audiencia Provincial de Barcelona ha admitido un recurso de la asociación AltraItialia en relación al tema de la memoria. Dicha querella fue rechazada en primera instancia, posteriormente, la decisión fue recurrida ante la Audiencia Provincial, que finalmente ha dado la razón a los recurrentes.

Esta circunstancia nos parece realmente interesante, porque recoge la admisión de una querella contra crímenes cometidos contra la humanidad. Además, el Ayuntamiento de Barcelona se ha personado en la misma.

Teniendo en cuenta todo lo referido, hacemos dos peticiones: por un lado, que se cumpla el acuerdo adoptado en marzo de 2015, esto es, la reunión que en su día solicitamos realizar con el consulado italiano, ahora, se lleve a cabo con la embajada de Italia. Hemos pasado del consulado a la embajada, porque el despacho de Bilbao pertenece al consulado honorario de Italia, que no es representante del Gobierno Italiano; es por ello que pensamos que el camino más directo es reunirse con la embajada que el Gobierno Italiano tiene en Madrid.

Eta beste alde batetik, eskatzen dugu Bartzelonako bidea jarraitzea. Uste dugu bide hau jorratu behar dugula Durango 1936 elkartearekin batera, eurek izan baitziren mozio hau bultzatu zutenak. Gerediagarekin egin duten datu-bilketa oso baliagarria izan daiteke kereilan erabiltzeko, eta eskatzen dugu AltraItalia elkartearekin harremanetan jartzea kereila horren zehaztasunak hobeto finkatzeko, beraiek oso lanketa juridiko ona egin dutelako.

* **Garcia Martin jaunak PSE-EE (PSOE)**: Ados gaude guztiok errepublika baten aurka altxatzea ez zela ideia ona izan, eta ezin dugu halako altxamendu baten alde egin. Gobernuek botoen legitimatea dute, eta horrexegatik, nik ezin eska diezaieket gobernuei barkamena eskatu dezatela, eurek ez zutenean gertaera haietan parte hartu. Bestalde, Durango 1936 eta Gerediaga elkarteei eskatuko nieke kontuan hartu ditzatela errepublikaren alde borrokatu zuten guztiak: errepublikarrak, sozialistak eta UGTko sindikalistak; izan ere, uste baitut errekonozimendua merezi dutela elkarte horiek egiten dituzten ekitaldietan.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: 1937 bonbardaketa eta hilketa faxistak, zoritxarrez, durangar guztiok partekatzen dugun ondarea da. Eta betebehar bat ere badugu gure herritarrekiko: ankerkeria hori oroitzea eta salatzea. Udalbatza honek egin beharreko guztiak egin behar ditu basakeria hori gogoratu eta erreparazioa eskatzeko.

Honekin lotuta, Udalak bat egin beharko luke gertakari horiek salatzen dituzten elkarteekin kereilaren bat edo beste aurkezteko orduan. Halaber, 2012an onartutako mozioa goitik behera sinatzen dugu. Orduan ez ginen udalbatzan, eta ez dakigu orduan eskatutakoa bete ote den. Eta eskatutakoa egin bada, gustatuko litzaiguke jakitea zer informazio lortu den.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Behin baino gehiagotan ados egon gara gai honen inguruan aurkeztutako mozioei aldeko bozka emateko, eta badirudi gaurkoan zalantzan jarri dela mozio haietan eskatzen zena alkate andreak bete izan duen ala ez. Batzuek ez

Asimismo, pedimos que se siga por el camino emprendido en Barcelona. Pensamos que debemos hacerlo conjuntamente con la asociación Durango 1936, puesto que fueron ellos quienes presentaron la moción. La recogida de datos que han llevado a cabo conjuntamente con Gerediaga puede ser de gran utilidad. Pedimos también que nos pongamos en contacto con AltraItalia para concretar los detalles de la querella, puesto que han hecho un trabajo jurídico muy a tener en cuenta.

* Concejal **Sr. Garcia Martin PSE-EE (PSOE)**: Todos estamos de acuerdo que aquello de levantarse contra una república no fue buena idea y no podemos avalar esa sublevación. Los gobiernos están legitimados por unas urnas y yo no puedo pedir a los gobiernos que pidan perdón cuando ellos no han estado en aquellos tiempos. Lo que sí pediría a las asociaciones Durango 1936 y Gerediaga es que tuvieran en cuenta a todas las personas que estuvieron luchando a favor de la República que eran republicanos, socialistas y sindicalistas de UGT, que creo que a veces se merecen un recuerdo en los actos organizados por estas asociaciones.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: El bombardeo y los asesinatos fascistas del 37 son, desagradablemente, un patrimonio compartido por todos y todas los durangueses y duranguesas. Es una obligación que tenemos para con nuestros vecinos y vecinas: denunciar, recordar su memoria y recordar esa barbarie. Desde esta corporación creemos que tenemos que llevar a cabo todas las acciones que sean necesarias para recordar y reparar tales atrocidades.

En este sentido, sí compartimos el incorporarnos como ayuntamiento con las asociaciones en alguna querella que pueda ser. Igualmente, también la moción aprobada en el 2012 la compartimos punto por punto. Entonces no estábamos en la corporación y no sabemos si se ha llevado a cabo. Si fue así, nos gustaría saber qué información se obtuvo.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: En más de una ocasión hemos estado de acuerdo en relación a este tema, y así lo hemos demostrado votando a favor de las mociones que se han traído, pero ahora parece que se pone en tela de juicio si la señora Alcaldesa ha cumplido lo aprobado en dichas mociones. Algunos no

ziren egon garai hartan eta normala da ez jakitea bete den ala ez, baina esan beharra dago baietz, bertan onartutakoa alkate andreak bete egin zuela, eskuetan daukat Italiako kontsulak bidalitako erantzuna:

estaban en la sala en aquellos momentos, por lo que es normal que no sepan si se ha cumplido o no, pero hay que decirles que sí, que la Sra. Alcaldesa ha cumplido lo aprobado y prueba de ello es la respuesta del cónsul de Italia que tengo entre mis manos:

ITALIAKO KONTSULAREN GUTUNA
CARTA DEL CÓNSUL DE ITALIA

"*Distinguida Doña Aitziber Irigoras,*

*Con relación a su atenta de 26 de Marzo de 2015, recibida el 07 de Abril 2015, paso a comunicarle respetuosamente, lo siguiente:*

*El Consulado Honorario de Italia en Bilbao no tiene competencia para tomar ninguna decisión para atender lo determinado en Pleno del Ayuntamiento de Durango de 28 de Febrero de 2012.*

*Con esta misma fecha, se ha dado traslado de su petición a la Embajada de Italia en Madrid.*

*En razón a lo expuesto, tampoco es posible concretar con Vds. una reunión a tal fin que, evidentemente, resultaría inútil por razón de mi falta de competencia para dilucidar cualquier particular sobre lo que Vds. pretenden debatir.*

*No obstante, quedo a su disposición para atenderles en cuanto necesiten, dentro de mis competencias legales.*

*Atentamente, le saluda,*

*El Cónsul Honorario, Giorgio Baravalle*."

Bilduko Bozeramaileak esan du gauza bat dela Bilboko kontsulatua eta beste gauza bat enbajada bat. Berak esaten duen moduan, eskakizuna enbajadara pasatuta dago, guk ez dugu erantzunik jaso, baina alkate andreak bai bete du bere garaian mozio baten bitartez eskatutakoa. Guk eskatzen diogu EHBilduri mozioaren lehenengo puntua erretiratzea, eskaria eginda dagoelako. Bestalde, eskatzen diogu, baita ere, 2. puntua batzordera eramatea, gai-zerrendan barneratu dadin eta alderdi politiko guztien artean eztabaida dezagun.

El Portavoz de Bildu ha dicho que una cosa es el consulado de Bilbao y otra la embajada. La solicitud ha sido remitida a la embajada; no hemos recibido contestación, pero la alcaldesa ha cumplido con lo que en su día se acordó. Pedimos a EHBildu que retire el primer punto de la moción, porque la petición ha sido realizada. Les pedimos también que el segundo punto lo lleven a comisión, para que sea incluído en el orden del día y lo debatamos entre todos los grupos políticos.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Alderdi Sozialistako Bozeramaileari gogorarazi nahi diogu, hauteskunde batzuk, ez dutela ez estatu espainolean ez Euskal Herrian ez beste inon, memoria ezabatzen. Hauteskundeak egin izanak ez du azaltzen estatu horrek egindako sarraskia ez onartzea. Alderdi Sozialistak oso hitz potoloak esan ditu altxamenduaren kontra, baina gero ez du erantzukizuna hartzen bere gain. Alemaniako Estatuak inolako arazo barik onartu ditu Gernikari egindako kalteak,

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Al Portavoz del Partido Socialista le recuerdo que unas elecciones no borran la memoria ni en España, ni en Euskal Herria, ni en ninguna otra parte. El hecho de que se celebren elecciones no supone que ese estado no reconozca la barbarie. El Partido Socialista ha utilizado unas palabras muy bonitas contra el alzamiento, pero luego no hace suya la responsabilidad que ello conlleva. El Estado Alemán ha reconocido abiertamente los daños ocasionados en Ger-

beraz, uste dut ez duela zerikusirik hauteskunde batzuk tartean egoteak memoria bere osotasunean gogoan hartzeko, egindako kalteak onartzeko eta erreparazioari bidea zabaltzeko.

Pozten gara gure mozioak zerbaitetarako balio izan duelako: orain badakigu Udal-Gobernuak zer egin duen 2015eko martxoan hartutako konpromisoarekin; kontuan izanik gu izan ginela Eusko Alderdi Jeltzalearekin batera konpromiso hori hartu genuenok, uste dut, errespetuz bada ere, apirilean jasotako erantzun horren berri izan behar genuela, baina, hala beharko balu ere, oraintxe jakin dugu, 8 hilabete igaro eta gero. Baina ez bakarrik guk, baizik eta mozio horren edo ekimen horren bultzatzailea izan zen elkarteak ere ez daki ezer gai honetaz. Guk uste dugu orain dela momentua eskaera ofiziala egiteko Italiako enbajadari, ez kontsulatuaren bitartez. Gogoratu behar da enbajada horretan hilabete honen hasieran omenaldia egin zitzaiela Italiako faxistei.

2. puntuari dagokionez, uste dugu onartu daitekeela momentu honetan. Egia da gero lanketa bat egin behar dela dagokion batzordean, bozeramaileen batzordean edo dagokion lekuan; izan ere, ondo zehaztu behar delako kereila hori: zehaztasun juridiko guztiak jakin behar dira, alegia, zelan lortu duten gizateriaren aurka egindako krimenengatik kereila bat onartzea... Eta lanketa hau Durango 1936 eta Geregiaga elkarteekin batera egin behar da.

Prest gaude lanketa batzorde batean egiteko, baina uste dugu lehenengo urrats hori, mozioa onartzea, gaur bertan egin daitekeela arazorik gabe.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Gai hau aurretik ere eztabaidatu izan da osoko bilkura honetan, hain zuzen ere, 2012ko otsailean eta 2015eko martxoan, eta Alderdi Popularrak kontrako botoa eman zuen. Gure botoa justifikatzeko esan zena gogorarazi nahi dut.

Hauxe esan genuen: "*Durangok jasandako bonbardaketa gerraren ondorio izan zen, eta, gerra guztiek bezala, horrek ere oinazea eta sufrimendua baino ez zuen eragin*."

Horrenbestez, ez dago Durangok duela 75 urte jasandako bonbardaketa berariaz ez kondenatzeko aitzakiarik.

nika, por lo tanto, no hay relación alguna entre la celebración de elecciones y el reconocimiento de los daños ocasionados y la apertura del camino hacia la reparación.

Nos alegramos de que nuestra moción haya servido para algo: ahora ya sabemos lo que el Equipo de Gobierno hizo con el compromiso adoptado en marzo de 2015. Teniendo en cuenta que el compromiso lo adoptamos conjuntamente con el PNV, creo que, por respeto, debería habérsenos transmitido la contestación recibida en abril; no obstante, no lo hemos sabido hasta ahora, después de haber transcurrido 8 meses. Y tampoco ha sabido nada al respecto la asociación impulsora de la moción. Creemos que es el momento de que se realice la petición oficial a la embajada italiana, que no al consulado. Debemos recordar que en dicha embajada, a principios de noviembre, se homenajeó a los fascistas italianos.

En cuanto al punto 2º, pienso que puede ser aprobado en estos momentos. Es cierto que precisa de un trabajo posterior en comisión, en la junta de portavoces o donde corresponda, puesto que tenemos que concretar la querella como es debido: debemos conocer todos los matices jurídicos, esto es, cómo han conseguido que se admita una querella por crímenes contra la humanidad. Y dicho trabajo previo habrá que hacerlo con Gerediaga y Durango 1936.

Estamos de acuerdo con que se traslade el tema a comisión, pero pensamos que, previamente, y como primer paso, hoy mismo podemos proceder a la aprobación de la moción.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: En este asunto, que ya se ha debatido en plenos de febrero de 2012 y marzo de 2015, el Partido Popular votó en contra. Voy a hacer mención de una parte resumida de la intervención que lo justificaba.

Decíamos "*El bombardeo que sufrió Durango fue consecuencia de una guerra que, como todas, nos produce dolor y sufrimiento.*"

Por lo tanto no existe una justificación para no realizar una condena explícita del bombardeo que sufrió Durango hace 75 años, pero sin el ánimo de rebajar la importancia de los hechos ocurridos en aquellas fechas.

Alabaina, eta egun horietan jazotako gertaerei garrantzia kendu nahi izan gabe, aitortu beharra dago, halaber, Durangoko zenbait herritarrek haien ideologia zela-eta zuzen-zuzenean jasan zituztela alderdi errepublikarraren ekintzen ondorioak, eta ez dutela erakundeen eskutik inolako aitorpenik jaso.

Zorionez, trantsizioari eta demokraziari esker, 40 urteko diktaduran metatutako gorroto zaharrak alde batera utzi ahal izan ziren, eta gaiztotutako zauriak itxi. Gure ustez trantsizio-aldian zabaldutako gogaidetasun-eta berradiskidetze-espirituak, Konstituzioak eta garai hartako Parlamentuaren gehiengoak onartutako amnistiaren legeak izan behar dute gaur egun ere Durangon bizikidetza eraikitzeko oinarriak."

Hauteskunde demokratikoek eta botoek iragana ezabatuko ez badute ere, uste dugu ez duela inolako zentzurik gobernu demokratiko bati mozio honetan planteatzen dena eskatzea.

* **Garcia Martin jaunak PSE-EE (PSOE)**: Bakarrik gogorarazi nahi dut memoriaren legea Alderdi Sozialistak sustatu eta onartu zuela gobernuan egon zenean. Eta gogorarazi nahi dut, agian, alderdi sozialista izan dela basakeria hartan zigorrik handienetakoa jasan zuena. Eta honen adierazgarri, hementxe bertan daukagu, Mirugain mendian.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Errespetu hitza erabili du EH Bilduko Bozeramaileak jasotako erantzunaren berri ez ematearren, eta bitxia da beraiek errespetuz hitz egitea zeren jakinda gai honen inguruan puntu asko ditugula amankomunean eta gai honen inguruan bai ezker abertzaleak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak biktima eta familia asko dituela minean murgilduta.

Non dago errespetua, mozio bat aurkeztu beharrean, gurekin hitz egin eta zerbait amankomunean egin ez duenean. Beraz, errespetua eskatzen denean, lehenik eta behin, bestearekiko errespetua erakutsi behar da, jakinda, batez ere, gai honek alderdi biak kolpatzen dituela eta mina alderdi bietan dagoela.

También es de justicia reconocer que hubo vecinos de Durango que, por razón de su ideología también sufrieron en su persona las consecuencias de las acciones del bando republicano y que no han recibido ningún tipo de reconocimiento institucional.

Afortunadamente la transición y la llegada de la democracia sirvieron para desterrar viejos socios acumulados durante los 40 años de la dictadura y que sirvieron para cerrar heridas enquistadas. Entendemos que el espíritu de concordia y reconciliación impregnaron la transición, la Constitución y la Ley de amnistía aprobada por la mayoría del arco parlamentario de aquel momento deben de ser los pilares sobre los que asiente la convivencia de hoy en Durango".

A pesar de que las elecciones democráticas y las urnas no vayan a borrar nada del pasado seguimos entendiendo que no tiene sentido pedir a un gobierno democrático lo que se está planteando por los que presentan esta moción.

* Concejal **Sr. Garcia Martin PSE-EE (PSOE)**: Simplemente recordar que la ley de memoria histórica la promovió y la aprobó el Partido Socialista cuando estaba en el gobierno. Y queremos decir también que quizá el Partido Socialista ha sido uno de los más castigados durante aquella barbarie. La prueba está aquí cerca, en el monte Mirugain.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: El Portavoz de EH Bildu ha pedido respeto porque no se les ha informado de la respuesta recibida, y es curioso que hablen de respeto cuando, en esta cuestión, tenemos muchos puntos en común, puesto que tanto la izquierda abertzale como el Partido Nacionalista Vasco han conocido el dolor a través de las víctimas y familiares cercanos.

Se nos acusa de falta de respeto cuando podían haberse dirigido a nosotros directamente en lugar de presentar una moción. Por lo tanto, antes de pedir respeto, primero, hay que mostrarlo para con los demás, sobre todo cuando esta cuestión y el dolor que genera nos golpean a ambos partidos.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Mozio bat aurkeztea leporatu zaigu, duela zortzi hilabete egindako eskariaren erantzuna oraintxe jakin izan dugunean. Erantzuna aurretik ezagutu izan bagenu, beharbada, ez genuen mozioa aurkeztuko, baina ez genekien ezer. Batera onartu genuen eta, gainera, egun hartan erretiratu genuen gure mozioa Alkate andreak konpromisoa hartu zuelako eskatutakoa betetzeko.

Agian argudio bat bilatzen ari zarete mozioaren aurka bozkatzeko, baina hala bada, lekuz kanpo dago esatea EHBilduren jarrerarengatik dela. Ez naiz eztabaidetan sartuko, bakarrik esango dut Bartzelona aurreko astean pertsonatu zela Audientzia Probintzialak zabaldutako prozedura penal batean. Orain arte ez da horrelakorik gertatu. Ate bat zabaldu digute, kasua oso antzerakoa da eta aukera dago. Ez dugu aprobetxatu behar eman zaigun aukera?

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Se nos reprocha haber presentado una moción, cuando acabamos de recibir la respuesta a una petición realizada hace ocho meses. Si hubiésemos sabido la respuesta, a lo mejor no la hubiéramos presentado, pero no sabíamos nada hasta hace un momento. La aprobamos conjuntamente, y la retiramos aquel mismo día, puesto que la Alcaldesa se comprometió a cumplir la petición.

Quizá estéis buscando un argumento para votar en contra, pero, en tal caso, estaría fuera de lugar reprochárselo a la actitud de EH Bildu. No entraré en debates. Sólo quiero apuntar que la semana pasada Barcelona se personó en un procedimiento penal incoado por la Audiencia Provincial. Hasta ahora no se habái dado un caso parecido. Nos han abierto una puerta, el caso es similar y tenemos opciones. ¿No debemos aprovechar la oportunidad brindada?

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitxa hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoa ren botoarekin, **EZ DA ONARTZEN** goian zehazturiko mozioaren testua.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.
- Votos en contra: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **RECHAZA** la Moción anteriormente transcrita.

**SEI.- HERRIAREN ESKUBIDEA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, "HAURTZAROA ZAINDUZ ETORKIZUNA ZAINTZEN DUGU" MOZIOARI BURUZKOA (SARRERA ERREGISTROA 2015008206, 2015EKO AZAROAREN 19KOA).**

**ZAZPI.- HERRIAREN ESKUBIDEA UDAL TALDEAREN MOZIOA, HIESAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKOA (SARRERA ERREGISTROA 2015008207, 2015EKO AZAROAREN 19KOA).**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Dakizuenez, 6. eta 7. Puntuak adierazpen instituzional moduan pasatu ditugu aho batez, beraz, hurrengo puntura pasatuko gara

**ZORTZI.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, ORDENANTZA FISKALEI BURUZKOA (SARRERA ERREGISTROA 2015008212, 2015EKO AZAROAREN 20KOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldearen ordezkariak aurkeztutako mozioa, Ordenantza Fiskalei buruzkoa, Sarrera Erregistroa: 2015008212, 2015eko azaroaren 20koa.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Mozioa irakurri aurretik azalpen txiki bat eman nahi dut.

Hemen Ordenantza Fiskalak aztertzen hasi ginenean, hasierako planteamendua izan zen, urriaren 15ean, plenora eramatea, eta guk eskatu genuen, gure kide bat lan kontuengatik Durangon ez zegoelako, egun hori ez ipintzea. Eskatutakoa errespetatu egin zen, baina ordutik hona denbora asko pasatu dela uste dugu, eta espero dugu data aldaketa hori aitzakia ez izatea. Gogoratu nahi dugu, baita ere, Ordenantza Fiskalak garaiz ez onartzeak herritarrentzat hainbat gabezia dakartzala.

**SEIS.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL HERRIAREN ESKUBIDEA RELATIVA A "CUIDANDO LA INFANCIA CUIDAMOS EL FUTURO". (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2015008206, DE 19 DE NOVIEMBRE DE 2015).**

**SIETE.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL HERRIAREN ESKUBIDEA RELATIVA AL DÍA INTERNACIONAL DE ACCIÓN CONTRA EL SIDA. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2015008207, DE 19 DE NOVIEMBRE DE 2015).**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Como sabéis, los puntos 6º y 7º han sido aprobados como Declaración Institucional por unanimidad, por lo que pasaremos al siguiente punto.

**OCHO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU RELATIVA A LAS ORDENANZAS FISCALES. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2015008212, DE 20 DE NOVIEMBRE DE 2015).**

Dada cuenta de la Moción presentada por la representación de Euskal Herria Bildu, relativa a las Ordenanzas Fiscales, con Registro de Entrada nº 2015008212 de 20 de Noviembre de 2015.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Antes de leer la moción, me gustaría dar una breve explicación.

Cuando comenzamos a estudiar la Ordenanzas Fiscales, el planteamiento inicial fue llevarlo a pleno el 15 de octubre, y nosotros solicitamos que no se fijara ese día, puesto que un edil de nuestro grupo estaría fuera de Durango por cuestiones de trabajo. Se respetó esa petición, pero creemos que ha pasado mucho tiempo desde entonces, y esperamos que el cambio de fecha no sea una excusa. También queremos recordaros que no aprobar las Ordenanzas Fiscales a tiempo supone algunas carencias para la ciudadanía.

Alderdiok ekarpenak egin ditugu, EH Bildurenak izan dira gutxien daukatenen mesedetan; alde batetik, gutxien daukanak gutxien aportatzea ikusten dugu, eta gutxien kutsatzen dutenek gutxiago ordain dezatela. Betidanik izan da gure proposamena Ordenantza Fiskalak eta aurrekontuak batera lantzea.

Urriaren hasieran komentatu zitzaigun guztioi horrela egingo zela, aurten erabaki zela Ordenantza Fiskalak eta aurrekontuak batera lantzea, nahiz eta Udaleko teknikariren bat harrituta geratu zen ez zekielako ezer gai horretaz. Hilabete bat baino gehiago pasatu da, eta ez daukagu informaziorik, ez ordenantzaren inguruan, ezta aurrekontuen inguruan ere. Hau guztia dela eta, erabaki dugu mozioa aurkeztea. MOZIOA IRAKURRI DU:

*"Euskal Herria Bildun arduratuta gaude udalaren egoera ekonomikoa larria delako. 2016. Urtea ordenantza fiskal berri barik hasiko dugu. Honekin, udalaren diru sarrerak murriztu egingo dira, gehien daukanak ez duelako diru sarreren araberako ekarpena egingo eta gutxien daukanarentzat aurreikusi ziren hobariak, zoritxarrez ezingo direlako aplikatu.*

*Irailaren erdialde inguruan 2016 urterako ordenantza fiskalen lanketarekin hasi ginen eta hainbat ekarpen egin genituen alderdiok. Urriaren 8an, Gobernu taldeak ordenantza fiskalak eta aurrekontuak batera landuko zirela azaldu zigun. Denbora pasatu da eta ez dugu berririk izan. EH Bilduk, urteetan zehar aldarrikatu izan du lanketa bateratuaren garrantzia, baina lanketa hau denboraz egin behar da eta ez planifikaziorik gabe. Udal gobernuak ez du agindutako proposamena bete, eta ordenantzak garaiz onartzeko epea pasatu zaigu.*

*Aurrekontuei dagokionez, 2015 urtean aurrekontu luzatu batzuk ditugu, EAJ-k aurkeztu ere ez zituelako egin. 2016ko aurrekontuei buruz ez dakigu ezer ere ez. Egiten ditugun aurreikuspenen arabera aurten behintzat ez dugu onartzeko aukerarik ere ez izango, ez dizkigutelako aurkeztuko.*

Desde las fuerzas del Ayuntamiento se han propuesto algunas aportaciones; las de EH Bildu han sido para favorecer a los que menos tienen: por un lado, porque vemos justo que los que menos tienen sean los que menos aporten; y por otro, porque los que menos contaminan deben de ser los que menos pagan. Siempre hemos propuesto trabajar simultáneamente las Ordenanzas Fiscales y los presupuestos.

A principios de octubre se nos comentó que se haría de esa manera, conjuntamente, a pesar de que algún técnico del Ayuntamiento se sorprendió, al no saber nada al respecto. Ha pasado más de un mes y no tenemos noticias ni sobre las ordenanzas, ni sobre los presupuestos. Es por todo ello que hemos decidido presentar una moción. LEE LA MOCIÓN:

*"Euskal Herria Bildu está preocupada por la situación económica grave que vive el Ayuntamiento de Durango. Comenzaremos el 2016 sin ordenanzas fiscales nuevas, con lo que los ingresos del Ayuntamiento se verán reducidos porque los que más tienen no van a aportar en función de sus ingresos y los que menos tienen no van a poder gozar de las bonificaciones previstas.*

*Comenzamos a mediados de septiembre con el estudio de las Ordenanzas Fiscales de 2016, y los partidos políticos presentamos varias aportaciones. El 8 de octubre, el Equipo de Gobierno nos manifestó que las Ordenanzas y los Presupuestos se estudiarían conjuntamente. Pero ha transcurrido el tiempo y no hemos tenido noticia alguna al respecto. EH Bildu lleva años reivindicando que ambos textos deben ser tratados conjuntamente, pero para ello se precisa de tiempo y de una planificación concreta. El Equipo de Gobierno no ha cumplido lo prometido, y ha vencido el plazo para la aprobación de las ordenanzas.*

*En cuanto a los Presupuestos, en 2015, tenemos unos presupuestos prorrogados porque el PNV ni los presentó. Y no sabemos nada en relación a los presupuestos de 2016. Según nuestras previsiones, tampoco este año habrá posibilidad de aprobarlos, porque ni nos los han presentado.*

*Gobernu Taldeak Udalaren egoera ekonomikoa lehentasuna bilakatu beharko luke, Durangarron egunerokotasuna jokoan dagoelako.*

*Guzti horregatik osoko bilkura honek hurrengo puntuak onartzen ditu:*

1. *2016 urterako ordenantza fiskalak lehen bai lehen onartzea.*
2. *2017 urtera begira, ordenantza fiskalak eta aurrekontuak batera landuko dira, epeak betez eta planifikazio bati jarraituz.*
3. *2016 urterako aurrekontuak ahalik eta arinen aurkeztuko dira. Era berean aurrekontu parte hartzaileak lantzeko aurrerapausoak emango ditu Udalak.*
4. *Gardentasuna ardatz hartuta, Udalaren egoera ekonomiko erreala eta aurrekontu baten zutabe nagusiak azalduko dituen jardunaldi zabal bat antolatuko da Durangarrentzat."*

*El Equipo de Gobierno debería dar prioridad a la situación económica del Ayuntamiento, porque está en juego el día a día de los durangueses/as.*

*Por ello, solicitamos al Pleno Municipal que adopte los siguientes puntos:*

1. *Aprobación, a la mayor brevedad, de las Ordenanzas Fiscales de 2016.*
2. *En 2017, las ordenanzas fiscales y los presupuestos se estudiarán conjuntamente, estableciendo plazos y una planificación determinada.*
3. *Los presupuestos de 2016 se presentarán a la mayor brevedad. Así mismo, el Ayuntamiento dará los pasos necesarios para que los presupuestos se elaboren de modo participativo.*
4. *En aras a garantizar la transparencia, el Ayuntamiento organizará unas jornadas abiertas para los durangueses/as con el objeto de estudiar la situación económica real y las bases principales para la elaboración del presupuesto."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Egungo egoera honakoa da: pleno honetan ez dira onartuko 2016ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalak, edo ez onartzen saiatuko dira. Honekin zera esan nahi dugu: ez direla kontuan hartuko hemen ordezkatutako alderdiok aurkeztu ditugun zuzenketak, eta jakina, ezta zirriborroan proposatutako igoerak ere. Horrek esan nahi du, kasurik onenean, edo hobeto esanda, kasurik txarrenean, abenduko plenoan onartu beharko liratekeela, hala erabakitzen bada.

Abenduaren 16ko Foru Arauari jarraiki, Toki Ogasunei buruzkoa, eta Zerga ordenantzen prestaera, argitalpen eta publizitateari buruzko haren 16. artikuluan zehaztutakoa ikusita, Gobernu-Taldea, eta beraz, Udala, epez kanpo dabil; bai proposamenak txertatzeko, baita aipatutako igoera aplikatzeko ere. Epea pasa zaigu. Hortaz, 2016ko ekitaldian, egun indarrean dauden orde-

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Las circunstancias en las que nos encontramos son las siguientes: en este pleno no se van a aprobar las Ordenanzas Fiscales para el ejercicio 2016 o no se van a intentar aprobar. Cuando decimos esto nos referimos a que ni se van a tener en consideración las enmiendas presentadas por los distintos partidos políticos aquí representados ni, por supuesto, el incremento propuesto en el borrador. Esto quiere decir, en el mejor de los casos o mejor dicho, en el peor, se tendrían que aprobar, si se decide, en el pleno a celebrar en el mes de diciembre.

Atendiendo a lo dispuesto en la norma foral 9/2005 de 16 de diciembre de Haciendas Locales y tal como se explicita en su artículo 16 sobre elaboración, publicación y publicidad de las ordenanzas fiscales, el Equipo de Gobierno y, por tanto, el Ayuntamiento, está fuera de plazo para o bien incluir alguna de las enmiendas propuestas o incluso para poder aplicar la subida que se proponía. Se nos ha pasado el plazo. Por lo

nantzak baino ezin izango dira aplikatu. Gobernu-talde honek kudeaketa "arrakastatsua" egin du beste behin, ez baita kapaza ezta bere proposamenak aurrera ateratzeko epeak kontrolatzeko ere.

Aurrekontuei dagokienez, eta zer garaitan gauden ikusita, ezin izango ditugu onartu abenduaren 31 baino lehen; hau da, berriro urratuko da abenduaren 2ko 10/2003 foru-arauaren 15.2 artikulua, alegia, Bizkaiko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzkoa, eta zelan ez, beste behin, gobernu-taldearen ardura faltagatik. Horrek ekarriko du, Gobernu-Taldeak egoki iritzi arte, 2016ko ekitaldia aurrekontuen luzapenarekin hasiko dugula.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Gobernu-Taldeak konpromisoa hartzen du laster aurrekontua aurkezteko; hain zuzen, datorren hilean. Denbora dezente daramagu berau lantzen.

Bestalde, mozio honetako planteamenduari dagokionez, bat gatoz zati batean, baina inolaz ere ez dugu onartzen egikera. Bai uste dugu diru-sarrerei eta gastuei buruzko debatea batera egin behar dela, eta horretan gabiltza. Eta, mozioan esaten den moduan, horretarako "denbora eta plangintza" behar dira. Alderdi politiko guztiok ahalegina egin behar dugu ordenantza fiskalak eta aurrekontuak batera lantzeko.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Pasa den urriaren 5etik, hiru batzar egin ditugu alderdiok egindako zuzenketak aurkezteko eta debatitzeko. Herriaren Eskubideako kideok ekarpenak egiteko lan egin dugu, baina ez dugu kontu honen berri izan urriaren 15az geroztik. Arduratuta gaude, bai alderdi politiko gisa, bai herritar gisa. Zer gertatuko da honekin? Epeengatik ezin izango dugu egin?

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: EHBilduko bozeramaileak esandako ia dena egia da. Ez du esan egia osoa baina esandakoa ia dena egia da, gauza bat izan ezik, ez zen izan urriaren 8an, baizik eta San Fausto jaiak

tanto, para el ejercicio 2016 sólo se podrán aplicar las ordenanzas fiscales actualmente vigentes. Otro éxito de gestión de este Equipo de Gobierno que ni tan siquiera es capaz de controlar sus tiempos para sacar adelante sus propias propuestas.

En lo que hace referencia a los presupuestos, y dados los tiempos en que nos estamos desenvolviendo, tampoco vamos a poder aprobarlos antes del 31 de diciembre, es decir, se va a incumplir una vez más el artículo 15.2 de la norma foral 10/2003 de 2 de diciembre presupuestaria de las entidades locales de Bizkaia y, como no, por otra falta de diligencia del equipo de gobierno. Esto implica que hasta que el Equipo de Gobierno no lo considere oportuno, iniciaremos el ejercicio 2016 con presupuestos prorrogados.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: El compromiso por parte del Equipo de Gobierno va a ser que en breve se presente el presupuesto, va a ser el próximo mes; llevamos trabajando en él bastante tiempo.

Por otro lado decir, que el planteamiento que se hace en esta moción, y que compartimos parte de ella, pero desde luego no la forma en la que se hace. Sí creemos que se tiene que dar un debate conjunto entre los ingresos y los gastos, y en ello estamos. Y tal como se dice aquí en la moción para ello se necesita "un tiempo y una planificación". Todas las fuerzas políticas tenemos que hacer un esfuerzo para que se trate de manera conjunta las ordenanzas fiscales y el presupuesto.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Desde el pasado 5 de octubre hemos tenido tres reuniones para presentar y debatir las enmiendas que hemos trabajado los diferentes grupos políticos. Desde Herriaren Eskubidea trabajamos para aportar en esta cuestión pero no tenemos noticias de ella desde el 15 de octubre. Estamos preocupados tanto como grupo político como por ciudadanía: ¿Qué es lo qure va a pasar realmente con esto? ¿Los plazos nos permiten realmente hacerlo?

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Casi todo lo que ha comentado la Portavoz de EHBildu es cierto. No es toda la verdad, pero casi todo lo dicho es cierto; excepto que fuera el 8 de octubre. En realidad, fue tras

eta gero. Orduan azaldu zen Ogasun batzordean Ordenantza Fiskalak eta aurrekontuak batera landuko zirela aurten.

Bitxia da gai batzuekin mozioaren bidea hartzea eta ez telefonoa, adibidez. Ez dakigu zein izan daitekeen helburua. Bitxia, baita ere, beste batzuk epe eta gardentasunari buruz ari direnean, artikuluak edo arau foralak aipatzea. Epe eta gardentasunaz hitz egin behar badugu aipatu dezagun guk emandako epea; emendakinak aurkezteko irailaren 16tik irailaren 30erako epea eman genuen eta ikusi beharko da ea denok epe hori formaz eta denboraz bete genuen edo ez. Beraz, egin dezagun denok autokritika pixka bat inori mozio baten inguruan ezer esan baino lehen.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Alderdi Sozialistako Bozeramaileari esan nahi diogu badakigula aurrekontuak lantzea lan handia dela, baina esan behar dugu 2014ko Kontu Orokorra aurkeztuta egongo balitz gutxienez, pistak izango genituela nondik abiatzeko. Data aldetik agian erratu egin naiz baina astebeteko kontua izan da, besterik ez.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Aurretik azaldutako guztiagatik, mozio honen aurka bozkatuko dugu. Bilduk gardentasunari egiten dio erreferentzia, eta gure ustez, gardentasuna ez dagokio soilik aurrekontuak egiteko prozesuari. Alderdi Popularrak eskatzen dio gobernu-taldeari, gardentasunaren mesedetan, herritarrei azal diezaiela euren efizientzia faltagatik Ordenantza Fiskalak aurreko ekitaldiko berberak izango direla eta aurrekontuak luzatu egingo direla, kontrakoa erabaki ezean.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Berretsi egiten dugu lehenengo txandan Alderdi Sozialistako Bozeramaileak esandako hitzak.

Geurea egiten dugu aurrekontuak abenduan aurkezteko konpromisoa. Bestalde, gogoratu, gardentasuna eta epeetaz gabiltzanean, Alderdi Popularra izan zela bere emendakinak formaz eta garaiz aurkeztu zituen alderdi bakarra, irailaren 30ean. Herriaren Eskubideak urriaren 1ean aurkeztu zituen bereak eta EH Bildu... Tira, zer

San Faustos cuando se expuso en la comisión de Hacienda que este año las Ordenanzas Fiscales y los presupuestos se trabajarían conjuntamente.

Resulta curioso que para tratar algunos asuntos se utilice la vía de la moción, y no el teléfono, por ejemplo. También es curioso que cuando se habla sobre plazos y transparencia, mencionen artículos y leyes forales. Si hablamos de leyes y transparencia, mencionemos también que nosotros fijamos como plazo para realizar enmiendas del 16 al 30 de septiembre. Veremos si todos cumplimos ese plazo en tiempo y forma. Por tanto, hagamos todos un poco de autocrítica, antes de decir nada a otros mediante mociones.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Queremos decirle a la Portavoz del Partido Socialista que ya sabemos la dificultad que conlleva el trabajar los resupuestos. Pero, también debemos decir que si por lo menos se hubiesen presentado las cuentas generales de 2014 tendríamos algunas pistas para saber de dónde partimos. A lo mejor me he equivocado con las fechas, pero la diferencia es sólo de una semana.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Vamos a votar en contra de esta moción por todo lo expuesto anteriormente. La transparencia a la que hacia referencia Bildu, desde nuestro punto de vista, no se tenía que referir unicamente al proceso conformador de los presupuestos, y el Partido Popular insta al Equipo de Gobierno a que, en honor de la transparencia, explique a la ciudadanía que por su ineficacia las ordenanzas fiscales son las mismas que las del ejercicio anterior y que los presupuestos seguirán prorrogados hasta que se decida lo contrario.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Corroboramos las palabras de la Portavoz socialista en la primera ronda.

Nos comprometemos a presentar los presupuestos en diciembre. Pero cuando hablamos de transparecia y plazos, quiero recordar que el Partido Popular fue el único que presentó sus enmiendas en la forma adecuada y en el plazo fijado; precisamente, el 30 de septiembre. Herriaren Eskubidea las presentó el 1 de octubre, y EH Bildu... En fin, qué vamos a decir sobre EH

esango dugu EH Bilduri buruz, ahoz egin baitzuen urriaren 6an batzordean: formaz eta denboraz ez zituen ondo aurkeztu, beraz, epea eta gardentasuna eskatzen ditugunean kontuan hartu ditzagun norberak egindako akatsak, eta hurrengoan, mozio bat aurkeztu beharrean, etorri zaitezte berba egitera zeren batzuetan, nahi duzuenean, bazatozte.

* <u>Uribe Padilla andreak (EH Bildu)</u>: Nik dakidala, legez, emendakinak plenora bertara aurkeztu daitezke; bestalde, egia da data batzuk ipini zirela eta ez genituela bete, ados. Baina legez pleno egunerarte ahal ditugu aurkeztu. Udalak bete behar batzuk dituela uste dugu, betebehar hauek gure udalak ez ditu bete, ez ditu aurrekontuak aurkeztu, ordenantza fiskalak "stand by"n daude eta ez dakigu zer gertatuko den. Guk uste dugu, udal batek ondo funtzionatzeko aurrekontuak eta ordenantza fiskalak behar dituela, eta espero dugu mozio hau onartu ostean, guztion artean lan eginez, udal hau hobeto joateko ahalegina egingo dugula.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitxa hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

- Kontrako botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.

- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **EZ DA ONARTZEN** goian zehazturiko mozioaren testua.

Bildu, cuando las presentó oralmente en la comisión del 6 de octubre, incumpliendo las formas y fuera de plazo. Por lo tanto, cuando exigimos transparencia y cumplimiento de plazos, tengamos en cuenta los fallos cometidos por uno mismo. Y, en adelante, en vez de presentar una moción, que vengan a hablar con nosotros, porque a veces, cuando quieren, bien que lo hacen.

* <u>Uribe Padilla andreak (EH Bildu)</u>: Que yo sepa, por ley, las enmiendas pueden ser presentadas en el pleno. Por otro lado, es cierto que se fijaron unas fechas y no las cumplimos. De acuerdeo. Pero por ley, pueden ser presentadas hasta la fecha del pleno. En nuestra opinión, el Ayuntamiento tiene algunas obligaciones, que en nuestro caso no se están cumpliendo: no ha presentado los presupuestos, las ordenanzas fiscales están en "stand by", y desconocemos lo que pasará en adelante. Opinamos que, para que un Ayuntamiento funcione bien, requiere de presupuestos y ordenanzas fiscales, y esperamos que, tras aprobar esta moción, trabajando codo con codo, hagamos un esfuerzo para que este Ayuntamiento funcione mejor.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

- Votos en contra: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.

- Abstenciones: NINGUNA.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **RECHAZA** la Moción anteriormente transcrita.

## BEDERATZI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.

- **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu):** Aurreko Osoko Bilkuran esan genuen mozio bat erretiratzen genuela, hain zuzen ere, Durangoko udaletxearen sarreran jarri den herritarrak tramite batzuk egiteko kutxazainaren ingurukoa zen, eta ez zuen betetzen irisgarritasun legea. Kasu horretan erretiratu genuen alkate andreak konpromisoa hartu zuelako arazo hori konpontzeko. Makina hori jarri zenetik bi hilabete baino gehiago pasatu direnean, arazoak bere horretan jarraitzen du, eta jarraitzen du irisgarritasun legea bete barik, beraz, gure eskaera oso zehatza da: bete irisgarritasun legea.

    - Beste galdera bat. Bere garaian eskatu genituen Sormen komunikazio enpresari ordaindutako fakturak. Esan digute aukera daukagula ikusteko baina ez kopia jasotzeko, eta azken boladan errepikatzen den ohitura da hau; lehen ez geneukan aukerarik informazioa eskuratzeko eta orain daukagu eskuratzeko baina ez kopiak ateratzeko. Gure galdera da, aukera baldin badago kopiak ateratzeko zergatik gure lana oztopatu jarrera horrekin?

    - Proposamen zehatz bat egin genuen hirigintza batzordean. Behin jakinda Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan babes ofizialeko etxebizitza huts gehien daukan bigarren herria garela, Gasteizen ondoren, eta 2015ean ere bi etxe kaleratze egon direla kontuan izanda, eztabaida monografiko bat eskatu genuen zinegotzi guztiekin etxebizitza politikaren inguruan; hainbat arlo ikutzen duelako eta hainbat batzordetan lantzen ari garen gaia delako, eta momentuz ez dugu inolako erantzunik jaso. Beraz gure galdera da ea gobernu taldeak konbokatzeko asmoa daukan.

    - Aspalditik ari gara galdetzen PERI Ferrocarril-ekin zer gertatzen den, operazio urbanistikoarekin, alegia. Berriz galdera berdina egin behar dugu: zelan dago horren garapena?

## NUEVE.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

- Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bldu):** En el pleno anterior, dijimos que retirábamos una moción; en concreto, la moción sobre la máquina instalada en el hall del Ayuntamiento para que la ciudadanía gestione ciertos trámites, la cual no cumple la ley de accesibilidad. En aquel caso, la retiramos porque la Alcaldesa se comprometió a resolver esa situación. Han pasado más de dos meses desde que se instaló la máquina, y ahí sigue, sin cumplir la ley de accesibilidad. Por ello, nuestra petición es muy concreta: que se cumpla la ley de accesibilidad.

    - Tengo otra pregunta. En su día, solicitamos las facturas pagadas a la empresa de comunicación Sormen. Nos han contestado que tenemos opción de ver las facturas, pero no para obtener las copias. Es una costumbre muy habitual últimamente: antes, no teníamos opción a recibir información, y ahora, podemos recibirla pero no podemos obtener copias. Nuestra pregunta es la siguiente: si hay opción para fotocopiarlas, ¿por qué obstaculizar nuestra labor con esa actitud?

    - Presentamos una propuesta concreta en la comisión de Urbanismo. Tras conocer que en el territoria de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa somos el segundo municipio, depués de Gasteiz, en número de viviendas de protección oficial vacías, y considerando que en 2015 se han dado dos casos de deshaucio, solicitamos un debate monográfico con todos y todas la ediles, a fin de tratar las políticas de vivienda; puesto que el asunto afecta a varias áreas y es tratado en diferentes comisiones. De momento, no hemos recibido ninguna respuesta sobre este tema. Por tanto, nuestra pregunta es si el Equipo de Gobierno tiene alguna intención de convocar dicho debate.

    - Llevamos mucho tiempo preguntando qué sucede con el tema de PERI Ferrocarril, concretamente, con el asunto de la operación urbanística. Repetimos la pregunta: ¿cómo se encuentra su desarrollo?.

- Aurreko bilkuran ere onartu zen herri kontuen euskal epaitegiari eskatzea 2013ko kontu orokorra fiskalizatzeko. Jakin nahi dugu alkate andreak eskaera hori bidaliko duen Herri Kontuen Euskal Epaitegira edo beste batzuk bidali behar izango dugun.

- Jakin nahi dugu ea zerbait egin den Durango-Gasteiz lotzen duen autobus zerbitzuaren inguruan.

- En el pleno anterior también aprobamos solicitar al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas que fiscalice las cuentas generales de 2013. Nos gustaría saber si la Sra. Alcaldesa trasladará esa petición o deberemos hacerlo otros.

- Asimismo, quisiéramos saber si se ha hecho algo en lo que se refiere al servicio de autobús que une Durango-Gasteiz.

➢ Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Kutxazainaren asuntua nire batzordean tratatu zen, beraz, azalpenak aktan egongo dira. Nahi baduzu pasatuko zaizu akta. Gainerako galderei erantzuteko betiko bideak erabiliko dira.

Plenoa amaitu aurretik, pasatu egin zait kontu-emate puntuan aipatzea baina orain esango dut. Dakizuenez bihar azaroaren 25a da eta eguerdiko 13:00etan batu egingo gara emakumeen aurkako indarkeria salatzeko, beraz, dei egiten dizuet zuei eta komunikabide eta herritarrei bertaratzeko eguerdiko 13:00etan. Gero, arratsaldean, manifestazioa egongo da. Mila esker denoi.

➢ Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: El asunto del cajero se trató en mi comisión; por tanto, las explicaciones estarán recogidas en el acta correspondiente. Si lo desean, se les pasará el acta. Para responder a las demás cuestiones, se utilizarán las vías habituales.

Antes de dar por finalizado el pleno, se me ha olvidado comentar un asunto en el punto de dación de cuentas, pero lo comentaré ahora. Como sabéis, manaña es 25 de noviembre, y nos reuniremos a las 13:00 horas para condenar la violencia de género. Con lo cual, se les convoca a los presentes, a los medios de comunicación y a toda la ciudadanía para que se unan a esta concentración y a la manifestación convocada para la tarde. Gracias a todos y todas.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 18:30ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:30 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.